

kultur leihoa • kultur leihoa • kultur leihoa

ezagutzen al  
duzu Donostia?

# Txiskuene

Agian, *Txiskuene* izango dugu Donostiako baserri zahar guztietan auzoz aldatu den etxe bakarra. Historia honela hasten da: beti Altzako herriarena izan den *Binagrene* gainean (gain honi gaur jende gehienak *Mirakruz*-gaina deitzen dio) zegoen *Bentaberri* baserria. Etxe hau «benta», ostatu eta baserria zen, jende askoren biltoki. Aurrean zuen *Artzakena Berri* beste ostatua. Aipatzen dugun azken etxe honek ardo txarra saltzen omen zuen, eta hortik *Binagrene* bihurtu zen. Pareko *Bentaberri* ordea, *Txiskuene* bilakatu zen. Izan ere, ostatuetako bezeroak beti prest dira edaritegiei izengoitia jartzeko. Badirudi «Txiskua» «cisco»tik datorrela (ikatz mota bat)... edo agian «istilu» izango zen bere esanahia? Hain ostatu konkurratuetan izaten ziren bai istiluak eta ardo txarra edo binagreak aukeran! Urteak pasa ziren eta errepedea



Txiskuene ostatua. Auzoz aldatu zen baserri etxea.

zabaldu zen zetozten auto berriei bidea egiteko, honela, *Artzakenek* zutik jarraitu zuen, baina *Bentaberri* bota egin zuten eta bertako familia beti ostalaritzan ibilia, Amara auzora pasa zen. Garai haïetan 1948. urtean *Betolandegi* (edo *Betelundegi*) baserriko semeek etxe berri bat eraiki zuten eta

*Betolandegi berri* izena jarri. Urte gutxitara Altzako *Bentaberri*etik etorritako familiak erosi egin zieten etxe hau, eta bertan beraien bizimodua zenez gero ostatu jarri. Ez zuten zalantzarik izan ostatuari izena jartzera: *Txiskuene* ostatua deitu zen. Urte gutxitara ospitaleak eraiki ziren, eta

lehen, *Binagreneko* gainean jende asko ibiltzen bazen, orain Gipuzkoako ospitale nagusien inguruetan, gehiago. Dena dela oraingo bezeroak, iruditzen zait apalagoak garela eta ez ditugula hainbesteko «ziskoak» muntatzen.

ARGAZKIAK ETA TESTUA: JOSU TELLARIDE

**caribu**

0-16 urte bitarteko tailak

Artile, pana eta kotoizko ehunak

ARCOO AMARA

Tfnoa: 46 95 95 • DONOSTIA

by LEMUR

ARGINDAR-HORNIDURAK

**TXINGUDI, C.B.**



**Elkarrekin zure bizitza hobetzen dugu**

Jose Maria Soroa 12 • 20013 DONOSTIA  
Tfnoak: 32 16 37 eta 29 09 41 • Faxa: 29 09 41